

Heldu tinko lanari

Luis Mari Bandres

Aiurri, Zenbaki berezia 1, 1997: 52-53.

Orain dela egun batzu Martin Ugaldere buruz lerro bat edo beste idazteko eskaera jaso nuenean zirrara bikoitza sentitu nuen: alde batetik, Martin andoaindarra delako eta nik kastaren erdia (amaren gurasoak) bertakoa daukadanez, maila batean behintzat, nire burua herrikidetzak hartzen diot. Baina, bestalde eta denbora oso luzeaz ez bada ere, berarekin batera lan egiteko aukera izan nuenez, eskaera jaso ondoren berarekiko nolabaieteko "obligazioa" nuela pentsatu nuen eta baietza eman nuen, noski.

Martin aurrez aurrez ezagutu baino lehen banuen haren idazlanen berri; horien artean, oso lagungarri gertatu zitzaidan bat aipatu nahi dut: *Unamuno y el vascuence* izeneko. 1966ean izan zen argitaratua Buenos Airesen. Garai hartan ni hogeitabi urteko gaztea nintzen eta euskal gauzetan murgilduta nengbiltzen. Gure kontra, edo hobeto esanda euskaren kontra, ez bakarrik falangistak, garai hartako internazionalista izeñeko batzuk ere baziren, noski. Haiek euskararen kontra aritzerakoan gaztelerazko "internazionalistak", behin baino gehiagotan euskararekiko Unamunoren jarrera aurpegiatzen ziguten. Horregatik Martinen ikerketa eskuratu ahal izan genuenean haiei aurre egiteko tresna oso baliagarria izan genuen eskuan.

Martin 1969an itzuli zen Euskadira. Ez daukat garbi buruan noiz ezagutu genuen elkar, baina badakit maiz elkarrekin topo egin genuela han eta hemen. Horregatik, 1985eko urtarrilean Eusko Jaurlaritzako Kulturako sailburu izendatu nindutenean eta aldeazurretik Martin Kultura Saileko Euskareren Sustapenerako zuzendari bezala bertan zegoenez, berarekin batera lan egiteko aukera izango nuela pentsatu nuen. Zoritxarrez aukera hori laster kamustu zitzaidan: Martini bere etxearen hurbilagoko beste lan bat eskaini zioten eta Gasteizera egunero joan-etorrian ibili gabe etxetik gertu gelditzea erabaki zuen. Horrela, urte bereko irailean "abandonatu" ninduen; beraz zortzi hilabete baino gehiago ez genuen aukerarik izan elkarrekin lan egiteko. Dena dela, garai hartako oso oroitzapen onak gordetzen ditut: ez genuen sekulan inolako diferentziarik izan eta lan egiteko oso giro jatorra izan genuen.

Geroago, askotan ikusi izan dugu elkar, bai eta gai baten edo besteren inguruan batera aritzea egokitu ere. Nire itxaropena hemendik aurrera urte askotako Martin bera eta bere laguntza gurekin izatea da eta denok badakigu idazle batek eman dezakeen laguntza ederrena zein den: beraz, Martin heldu tinko lanari! Eta eskerrik asko!.